

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1058

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 27koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendaria-rena, zeinaren bidez aldatzen baitira, batetik, 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena, organo berarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen, eta bestetik, 2024ko uztailaren 31ko Ebazpena, organo berarena, prozesu horretako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua ematen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko maiatzaren 18an emandako Aginduaren bidez (2022ko maiatzaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua), oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 18an emandako Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu berezietako eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuetako deialdia egin zen, eta prozesu horietako oinarri espezifikoak onartu ziren.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartu ziren.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko uztailaren 31ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zen.

Enplegu Publikoko zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 23ko 6/2025 Ebazpenaren bidez, salbuespenezko prozesuan hautagai baten jarduketak baliogabetu ziren eta karrerako funtzionario izendatzeko ondorioetarako hautagai hori baztertu zen Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako eskalan. Izan ere, egiaztatu da ez duela betetzen Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako eskalako salbuespenezko hautaketa-prozesuan (lehiaketa) parte hartzeko eskabidean adierazitako betekizuna, eta betekizun hori bete behar da Osasun Publikoko teknikariaren lanpostua (kodea: 511190; dotazioa: 70) esleitzeko eta jabetzan hartzeko.

Ondorioz, kontuan hartuta hautagaiak ez duela aurkeztu horretarako aurreikusitako izapidean alegatutako baldintzaren egiaztapenari buruzko dokumentazioa, oinarri orokorren 15.3 atalean aurreikusitakoa aplikatu behar da. Atal horrek dokumentuak ez aurkeztearen ondorioak arautzen

ditu, eta, horren arabera, ezin izango da karrerako funtzionario izendatu adierazitako epearen barruan dokumentuak aurkezten ez dituen, ezinbesteko kasua gertatu ezean, ezta, aurkeztutako dokumentuen azterketaren arabera, hirugarren oinarrian eskatutako betekizunen bat betetzen ez duena, edo lanpostuaren zereginetan aritzeko eskatzen den gaitasun fisikoa edo psikikoa ez duena ere. Kasu horietako bat gertatuz gero, egindako jarduketa guztiak deuseztatuko dira, eta, gainera, baliteke eskabidea faltsutzeagatik hautagaiak erantzukizuna izatea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena aldatzea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako izangai bat prozesutik baztertzeko. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Osasun Publikoko eta Epidemiologiako eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartu ziren.

Baztertutako izangaia eta betetzen ez duen betekizuna ebazpen honen eranskinean zehaztuko dira. Eranskin hori argitara emango da hautaketa-prozesuko web-orriko Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

Bigarren artikulua.– Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko uztailaren 31ko Ebazpena aldatzea, zerrenda horietatik izangai hori baztertzeko. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zen.

Hirugarren artikulua.– Gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; betiere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengoaren arabera. Errekurtoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtoa, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakiok, edo Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da errekurtoa, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 27a.

IVAPeko Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 artikulua).

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Hautaketa eta Prestakuntzako zuzendariordea,
IMANOL URIGUEN GARAIZABAL.